

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

Bilbon, 1978, abenduak 29

Euskaltzaindiko sail, atal eta batzorde guztien organigrama *Euskera*-n agertu zen, 1971. urtean, 160. orrialdean. Beraz, denbora asko pasatu da bitartean.

Geroztik, beste batzorde berri batzuk ere jarri dira, organigrama hartan ageri ez direnak.

Batzordeetako jaun batzuk hilak dira, beste batzuek ez dute lanik egin. Zenbait batzorde zaharkituak dira. Beste zenbaitek beren zeregina bete zuten eta gaur hoi beharrik ez dago. Beste batzuk ez dira sekulan martxan jarri, paperean egonarren. Etab.

Beraz, mundu guzti hau berriro aztertu, gaurkotu eta antolatu beharra dago.

Lan luzea da eta arduraz egitekoa.

Gaur hasiera emango diogu. Hasiera bakarrik. Dena burutzeko eta erabakitzeko asmorik gabe.

Idazkari ordearekin batzordeen egoerari eta gaurko premiei gain-begiratu bat bota ondoren, txosten hau prestatu dut gaurko batzarrerako. Hemen denon artean eztabaidatuko ditugu gauzaok. Erabakia, nahi baduzue, beste baterako utziz.

Euskaltzaindiko sail eta batzorde guztien partiketa nagusi bat era huntara egin daiteke: 1) Egiturari dagozkion batzordeak 2) Gaien batzordeak.

Egiturazkoak, izenak berak dioenez, Euskaltzaindiaren beraren azpiegituraz zer-ikusi dutenak dira. Besteak, berriz

—Gaien batzordeak—, hizkuntza alorreko gai edo sail berezi batzuk aztertzeko, bultzatzeko edo iristeko eginak.

Gaien batzordeen artean beste partiketa bat egin daiteke oraino: A) Iraunkorrak B) Suntsikorrak.

Iraunkorrak dira beren izatez betiko edo behintzat luzarorako sortuak direnak. Suntsikorrak, berriz, epe laburrerako eta momentuko xede konkretu bat lortzeko eginak direnak. Agi denez, hauek xede hori lortuz gero deseginak gelditzen dira.

Has gaitezen, bada, beste gabe, Egiturazko batzordeekin.

Atal huntan hauk sartuko nituzke: 1) Euskaltzaindiaren Ekonomi-Batzordea 2) Euskaltzaindiaren Liburutegiaren Batzordea, eta 3) Euskaltzaindiaren bošt Ordezkaritzak, hots, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baiona.

1) Euskaltzaindiaren Ekonomi-Batzordea. Denok ikusten dugu Batzorde hunen beharra eta garrantzia, batez ere Bai Euskarari kanpaina egin denetik. Herriak eman digun dirua beharko da ongi kontrolatu eta administratu. Bestela, herriaren aurrean fidagarritasun guztia galduko genuke. Gainera, hartutako diruen kontu eman behar zaio herriari eta baita diru hori zertan eralgiko den esan ere, behintzat handizka. Euskal kulturaren alorrean zenbait obra, laguntza horri esker egin direla edo egiteko bidean direla, ikus dezala, alegia. Esate baterako, Euskararen Lekukoen Bilduma, Euskaltzaindiaren Liburutegi eta Artxiboa, etab. - Batzorde huntako buru, Juan San Martin izango da, Diruzain izendatu dugunez gero. Eta berari lan huntan laguntzeko, batzordekide bezala, Juan Jose Zearreta eta euskaltzain oso bat, ahal delarik, (Eusebio Erkiaga?, E. Knörr?). Hoietaz gainera, Kontseilari bezala, Bai Euskarari kanpaina eratu zuten jaunetarik batzuk gehitzen dira: Elorriaga, Castañares eta Aurmaneko bat (berek proposatuko dutena).

2) Euskaltzaindiko Liburutegiaren Batzordea. Liburutegia eta Artxiboa behar bezala egokitzea eta publikoaren kontsultarako idekirik edukitzea asmo zahar bat zen, orai arte diru eskasiagatik egin ahal izan ez dena. Orai, ikusten dugunez eta zorionean, amets hau egia bihurtzeko bidean dago.

Batzorde hunen buru Alfontso Irigoyen izango da, Liburuzain denez gero. Batzordekideak: Jose Antonio Arana Martija eta Nikolas Alzola. Euskaltzaindiko liburutegia egokitzea, behar diren erosketak egitea etab., hoiien kontu gelditzen da, beraz. Halako xahupen eskerga edo neurritz kanpoko bat egin nahi denean, ordea, Zuzendaritzakin kontatu behar dute.

3) Euskaltzaindiaren Ordezkaritzak. Ordezkaritza guztien buru Euskaltzaindiaren Idazkariak izan behar du, Arautegiak berak dioenez (11. artikulua; ikus *Euskera* (1972), 202). Beraz, Jose Maria Satrustegi jaunak. Hunen lana da Ordezkaritza guztien arteko koordinaketa egitea edo zaintzea.

Gainerakoan, hiriburuetakoa Ordezkaritzak era huntara taxutuak gelditzen dira:

Bilboko Ordezkaritzaren buru eta idazkari, J. L. Lizundia.

Gasteizko Ordezkaritzaren buru: E. Knörr. Denboraz hartu beharko da Gasteizen gela bat bertan bulegoa ipintzeko, eta langileren bat ere bai, zenbait orduz bederen han egongo dena. Entzun dudanez, bada emakume bat, Itziar Rekalde, hortarako prest dagoena.

Iruñeko Ordezkaritzaren buru: J. M. Satrustegui. Iruñeko bulegoa jazten eta atontzen ari direla badakit. Han ere langileren bat beharko da, Satrustegiri bulego lanetan laguntzeko.

Baionako Ordezkaritzaren buru: Jean Haritschelhar jauna. Idazkaria: Charritton jauna.

Donostiako Ordezkaritza. Hemen dugu hutsune bat handia, eta aspaldidanik gabiltza nola hornitu ez dakigula. Donostia hain garrantzi handiko tokia izanik, Euskaltzaindiaren ordezkari bat bertan edo inguruan egotea behar-beharrezko da. Eta ez dugu. Askotan neri deitzen didate Arantzazuko puntatik hara joateko, baina ez da itxura. Euskaltzaindiaren ordezkari izango den euskaltzain oso bat Donostian edo inguruan behar dugu. Gipuzkoan euskaltzain oso berri bat izendatzeko garaia datorrenean, uste dut premia hau kontuan eduki beharko dela. Gainerakoan, idazkari edo sekretaria egoki bat badugu Donostian: Maria Pilar Lasarte.

Beharbada, eta euskaltzain oso bat ez dugun bitartean, Joseba Intxaustiri eska dakioke Ordezkaritzaren erantzukizun hau har dezan probisionalki. Ez dakit nahiko duen, ordea, bestelako lanetan ere buruz gain sartua baitago.

II

GAIEN BATZORDEAK

1) Euskeraren Lekukoena. Hau konfirmaturik gelditzen da. Beraz, buru L. Mitxelena. Idazkari: L. Villasante. Hoietaz gainera, beste jaun hauek osatzen dute batzordea: P. Lafitte, J. M. Satrustegi, A. Zavala, L. Akesolo, N. Alzola eta Jean Haritschelhar-ek.

2) Irakaslegoaren batzordea. Buru: A. Irigoyen. Idazkari: X. Mendiguren. Hoietaz gainera, beste hauek ere osatzen dute batzordea: E. Knörr, X. Kintana, J. A. Letamendia, P. Uribarren, I. Laspiur, Txillardegi, Charritton, J. L. Goikoe-txea, J. M. Mujika eta A. Ozamiz.

3) Euskera aldizkariaren batzordea. Gutxi gora-behera, lehen bezala gelditzen da, aldaketa ttipi batzuekin. Beraz, batzorde hunetan, beren karguengatik, hunako jaun hauek sartzen dira: Euskaltzainburua, Buruordea eta Idazkaria. Hoietaz gainera L. Mitxelena, A. Irigoien, L. Akesolo, P. Lafitte eta J. Intxausti. Lan ejekutiboa argitalpenen arduradunak egingo du: R. Badiolak.

4) Bertsolarien batzordea. Lehengo berbera, izen batzuk aldatuz halere. Beraz, A. Zavala, Juan Mari Lekuona, A. Irigoien, Bordari, Itzaina, Izeta, Aranalde eta J. M. Iriondo. Emile Larre, Antton Aramburu, Abel Muniategi. Buru: Zavala. Idazkari: J. M. Iriondo.

5) Herri izendegiarena. Buru, L. Mitxelena. Idazkari, J. L. Lizundia. Hoietaz gainera, J. M. Satrustegi, E. Knörr eta J. L. Davant. Gainera, tokian tokiko kontseilariak hartuko dira E. Larre. Charritton.

BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

(segida)

Donostian, 1979, martxoak 30

Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztietan berriztatze eta gaurkotze bat egin beharra ikusten da. Joan den Abenduko batzarrean berriztatze lan honi hasiera eman zitzaion. Eta gaurko txostenak haren segida izan nahi du. Segur aski, gaur ere ez zaio buru emango lan honi. Dena dela, zati bat egiten baldin badugu, urrats bat gehiago izango da. Uste dut lan hau garrantzizkoa dela eta patxadaz egin beharrekoa. Dena bukatzen denean, organigrama bat aterako da eta bertan Euskaltzaindiko sail guztiak begi kolpe batean azalduko zaizkigu.

Gaien batzordeetan bost azertu eta onartu ziren Bilboko batzar egunean —joan den Abenduko 29ko batzarrean, alegia—.

Beraz, hel diezaiogun orai seigarrenari:

6. *Oinarrizko euskararen batzordea*. Buru: Imanol Berriatua. Idazkari: Joan Jose Zearreta. Horietaz gainera honako beste hauekin da osatua batzorde hau: Txillardegi, X. Kintana, J. L. Goikoetxea.

7. *Alfabetatze-Euskalduntze batzordea*. Juan San Martin, Jagon-saileko buru denez gero, izendatzen da batzorde honen buru. Batzorde honek bi sail edo azpibatzerde ditu: batari deritza "Bulego har-emanen azpibatzerdea", eta besteari "Gidaritza teknikoaren azpibatzerdea" —testuen aztertzea etab. dagokio honi—. Bulego har-emanen azpibatzerdea eskualdeka banatua egongo da, era honetara: Gipuzkoan J. San Martinek izango du ardura, Araban E. Knörr-ek, Nafarroan J. M. Satrustegik —edo berak proposatzen duen beste

batek—, Bizkaian J. L. Lizundiak, Iparraldean Charritton jaunak. Gidaritza teknikoaren azpibatzorderako nortzuk izendatu, nik ez dakit. Beharbada Jon Aurre jaunari beharko zaio iritzia eskatu. Dena dela, bi edo hiru jaun izanen dira.

8. *Administralgo hiztegiaren batzordea*. Gaur-egun batzorde honen premia garbi baino garbiago sumatzen da. Euskara administrazio hizkuntza bihurtuko baldin bada, jendeak behar du jakin administrazioan erabiltzen diren hainbeste izen euskaraz nola diren. Uzei-n badabilta jaun batzuk Politika hiztegia egiten, eta jaun horiekin eta beste batzuekin egiten dugu batzorde hau. Bi atal ditu: Egileena eta Kontseilari edo kontsultoreena. a) Egileen atala. Buru: J. Haritschelhar jauna —herriko alkate baita—. Idazkari: J. L. Lizundia —herriko idazkari izan baita—, eta gero beste hauek: F. Mendizabal, X. Kintana, J. A. Arana-Martija. b) Kontseilari edo kontsultoreen atala: J. M. Lojendio, Jesus Oleaga, Patxi Zabaleta, Rica, Muniategi, Itzaina, Iztueta, elizaren aldetik E. Etxezarreta.

9. *Elebitasun lege projektorako batzordea*. Elebitasun lege edo dekreto hau oraindik ez da irten. Entzun dudanez, 5 borradore egin dira jadanik. Beraz, horretarako jarri zen batzordeak oraindik badu zeregin, eta dekretoa irten ondoan ere, segur aski, premia izanen da antzeko arazoetan bere iritzia eta laguntza emateko. Jaun hauek osatzen dute, bada, batzorde hau: J. M. Satrustegi, E. Knörr, Letamendia, Lizundia, Mendiguren, P. Uribarren; eta Nafarroako arazoetan kontsultore gisa, Kepa Larunbe.

BATZORDEEN BIR-ANTOLAKETA

(Bukaera)

Donostia, 1979, apirilak 27

Abendu eta Martxoko batzarreetan aritu ginen Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztien gaurkotze lan honetan. Gaur ere horretan arituko gara, baina oraikoan lanari buru ematen diogularik.

Izan ere, azkeneko batzarrean bi batzorde bakarrik gelditu ziren guztiz erabaki gabe: 10 eta 11. batzordeak, hots, Herri jakintza batzordea eta Aditz batzordea.

10. *Herri jakintza batzordea*. Batzorde berri honen zeregina izango da herriko hizkerak, euskalki mintzatuak, herri literatura ahozkoa etab. jasotzea eta aztertzea. Batzorde buru, Antonio Zavala izendatzen da. Batzorde idazkari, J. M. Satrustegi. Hauez gainera honako jaunek osatuko dute batzorde hau: A. Irigoien, E. Larre, Aita Iratzeder, Aita J. Moko-roa, Paul Guilsou, G. Lpz. de Guereñu.

11. *Aditz batzordea*. Batzorde honek, denok dakigunez, lan ederra egin du. Oraindik ere zerbait egin dezakeelakoan, guti gora behera lehen bezala uzten dugu. Beraz: L. Mitxelena buru, P. Altuna idazkari. Hauez gainera honako jaun hauek osatzen dute Atal Eragilea: P. Lafitte, J. L. Davant, I. Berriatua. Kontseilarien atala, berriz, beste hauek: A. Irigoien, L. Akesolo, D. Intza, P. Iraizoz, X. Kintana, F. Mendizabal, I. Bastarrika, J. J. Txillardegi.

Eta honenbestez uste dut burutua gelditu dela Euskaltzaindiko batzorde eta sail guztien bir-antolatze lan hau.


Idazkari ordeak egingo du organigrama bat gaur-egun Euskaltzaindiak dituen sail eta batzorde guztiekin, nor non

dagoen etab. ezarririk, norbera kontura dadin. Organigrama hori hurrengo *Euskera*-n agertuko da.

Abenduko batzarrean Donostiako Ordezkaritzan buru izateko, probisionalki bederen, Joseba Intxaustiren izena proposatu zen; baina berarekin hitz egin beharra zegoen. Orduan, Ameriketara aurkitzen zelako, ez nuen hitz egiterik izan. Gero, berriz, hitz egin dut, eta prest dago kargu hori onartzeko, zenbait mugarekin.

Abenduko batzarre berean esan nuen zein premiatsu zen Donostiako Ordezkaritzaren arazoa konpontzea. Edozeinek daki Donostiak eta Guipuzkoak zer pisu daukaten euskal kulturaren munduan eta ezin eduki dezakegu hemengo geure Ordezkaritza beti umezurtz. Jaun egoki baten faltaz horrela eduki dugu luzaz. Noizbait aurkitu dugu jaun hori. Egia da berez kargu hau, ahal dela, euskaltzain oso den norbaiti dagokiola, baina horietako bat ez dugun bitartean uste dut Intxausti jauna aukerakoa izango de la Euskaltzaindiaren errepresentazioa Donostian eramateko: Donostian bizi da, oso gizarteko da, ezagutza asko dituen gizona da, euskal kulturaren munduan guztiz sartua, etab.

Beraz, batzarreak onartzen baldin badu, Donostiako Ordezkaritzaren buru Joseba Intxausti jauna izendatzen da.



Egiturazkoak

Buru: L. Villasante

Zuzendaritza

Buru: L. Villasante

Buru-orde: J. Haritschelhar

Idazkari: J. M. Satrustegi

Diruzain: J. San Martín

Idazkari-orde: J. L. Lizundia

Iker Sails

Buru: L. Mitxelena

Herri jakintzarena

Buru: A. Zavala

Idazkari: J. M. Satrustegi

Kideak:

X. Diharce

A. Irigoyen

E. Larre

P. Guilsou

G. Lpz. de Gereñu

Aditza

Atal eragilera:

Buru: L. Mitxelena

Idazkari: P. Altuna

Kideak:

J. L. Davant

P. Lafitte

I. Berriatua

Kontseilarien atala:

Kideak:

D. Intza

P. Iraizoz

A. Irigoyen

I. Baztarrika

J. L. Alvarez

X. Kintana

F. Mendizabal

Ordezkaritzen koordinaketa

Koordinaketa buru:

J. M. Satrustegi

Bilboko bulego-buru:

J. L. Lizundia

Donostiako ordezkar:

J. Intxausti

Donostiako idazkari:

M.^a P. Lasarte

Gasteizko ordezkar:

E. Knörr

Gasteizko idazkari:

I. Rekalde

Iruñeko ordezkar:

J. M. Satrustegi

Iruñeko idazkari:

G. Insausti

Baionako ordezkar:

J. Haritschelhar

Baionako idazkari:

P. Charritton

Herri Izendegia

Buru eta Gipuzkoatik:

L. Mitxelena

Idazkari eta Bizkaitik:

J. L. Lizundia

Arabatik:

E. Knörr

Nafarroa Garaitik:

J. M. Satrustegi

Nafarroa Beheretik:

E. Larre

Zuberoatik:

J. L. Davant

Lapurditik:

P. Charritton

Herri-Administralgo hiztegia:

Buru: J. Haritschelhar

Idazkari: J. L. Lizundia

Kideak:

X. Kintana

F. Mendizabal

J. A. Arana

Kontsultariak:

J. M. Lojendio

M. Itzaina

J. Oleaga

P. Zabaleta

E. Etxezarreta

P. Iztueta

A. Muniategi

M. Rika

Euskararen lekukoena

Buru: L. Mitxelena

Idazkari: L. Villasante

Kideak:

J. Haritschelhar

P. Lafitte

J. M. Satrustegi

A. Zavala

L. Akesolo

N. Alzola

BATZORDEEN ORGANIGRAMA

Ekonomi Batzordea

Buru: J. San Martin
Diru begirale: X. Gereño
Eragile: J. J. Zearreta
Kontsultariak:
A. Elorriaga
J. Castañares
"Aurman": B. Artola

"Azkue" Biblioteka

Buru: A. Irigoyen
Idazkari: J. A. Arana
Kidea: N. Alzola

"Euskera" eta argitalpenak

Buru: L. Villasante
Buru-orde: J. Haritschelhar
Idazkari: J. M. Satrustegi
Kideak:
A. Irigoyen
P. Lafitte
L. Mitxelena
L. Akesolo
J. Intxausti
Eragile: R. Badiola

Jagon Saila

Buru: J. San Martin

Bertsolariena

Buru: A. Zavala
Idazkari: J. M. Iriondo
Kideak:
A. Irigoyen
E. Larre
J. M. Aranalde
F. Artola
M. Itzaina
M. Izeta
J. M. Lekuona
A. Aranburu
A. Muniategi

Alfabetatze- Euskalduntzearena: Harremanetakoak:

Buru eta Gipuzkoarako:
J. San Martin
Arabarako: E. Knörr
Nafarroarako:
J. M. Satrustegi
Bizkairako: J. L. Lizundia
Iparralderako: P. Charritton

Gidaritza teknikoa:

X. Mendiguren
P. Uribarren
J. J. Zearreta

Irakaslegoarena

Buru: A. Irigoyen
Idazkari: X. Mendiguren
Kideak:
E. Knörr
P. Charritton
X. Kintana
I. Laspiur
J. A. Letamendia
P. Uribarren
J. J. Zearreta
J. L. Goikoetxea
J. A. Mujika
A. Ozamiz

Oinarrizko euskara

Buru: I. Berriatua
Idazkari: J. J. Zearreta
Kideak:
J. L. Alvarez Enparantza
X. Kintana
J. L. Goikoetxea

Elebitasunaz harremanak

Buru: J. M. Satrustegi
Idazkari: J. L. Lizundia
Kideak:
E. Knörr
J. San Martin
J. A. Letamendia
X. Mendiguren
P. Uribarren

